

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

602

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 15ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baita metalaren tratamendua eta estaldura egiteko ingurumeneko baimen bateratua, Cromados Rexgon SLk sustatua Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian (Kantabrikoaren hiribidea, 4, 13., 14. eta 18. pabiloiak).

AURREKARIAK

2017ko otsailaren 9an, Cromados Rexgon SLk ingurumeneko baimen bateratua emateko eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, metalaren tratamendua eta estaldura egiteko haren instalazioetarako, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba).

Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalaren txostena aurkeztu zuten, 2017ko otsailaren 21ekoa, jarduera hirigintzarekin bateragarria zela egiaztatzen zuena.

Prozedurari berriz ekinda eta aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordearen 2017ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez erabaki zen Cromados Rexgon SLk sustatutako proiektua 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, egoki irizten diren alegazioak aurkezteko. Horretarako, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Eusko Jaurlaritzaren Iragarki Taula Elektronikokoan argitaratu zen, 2017ko azaroaren 15ean.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, 2018ko urtarrilaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizko Udalari, Osasun Sailari eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari.

2018ko abenduaren 20an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Cromados Rexgon SLren esku utzi zen espediente osoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) bere 1. artikuluan ebazten duenaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, eta, hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskinean jasota dauden jarduerak garatzen dira instalazioan; horietaz gainera, baimen honek barnean hartzen ditu aipatutako legearen aplikazio-eremuan sartzea ekarri zuten instalazioaren kokapenean garatzen diren jarduera guztiak, baita, eranskin horietan jasota ez egonik, jarduera

horrekin lotura teknikoa dutenak eta sor daitezkeen isurtzeen eta kutsaduraren gainean ondorioak izan ditzaketanak ere.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatzen dena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueretako edozein garatzen duten instalazioak ustiatzeko. Testu bateginaren 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten administrazio publikoen artean koordinatuta egongo den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzeko. Era berean, indarrean dagoen araudian jasotako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Cromados Rexgon SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimena, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera isurtzeak egiteko baimena, atmosferara igorpenak egiteko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, hondakinak sortzeari dagozkion baimenak eta lurzorua eta lurpeko uren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorritik.

Lehenago aipatu dugun Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, jarduera deseroso, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egin ahal izateko administrazio eskudunek herritarren ekintzen gainean esku hartzeko dituzten administrazio-bitartekoak ordezkatzeko dituzten ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 39. artikulua xedatzen duenez, neurri guztiak hartuko dira lizentziak eta baimenak eskuratzera bideratutako administrazio-prozedurak koordinatzeko. Adierazitako aginduak aplikatuz, Cromados Rexgon SLren ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran sartuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, adierazi behar da ebazpen honek kontuan izan dituela teknika erabilgarri onenak eta aplikatzeko den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak, bai instalazioak gehienez isur eta igor ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak zehazteko, bai, ingurumen osoa ahalik eta gehien babesteko helburuz, instalazioaren ustiapenari ezarriko zaizkion bestelako baldintzak erabakitzeke. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko BREF dokumentuaren (Metalen eta plastikoen gainazaleko tratamenduak) edukia kontuan hartu dira.

Azaldu dugun guztia aintzat hartuta, espedientean jaso diren txosten guztiak aztertutakoan ebazpen-proposamena egin zen, eta bertan jaso ziren Cromados Rexgon SLk sustatutako jarduerari aplikatu beharreko baldintzak.

Azaldukoarekin bat, goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta entzunaldi-izapidea bete da, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan jasotzen dena.

Aintzat hartu da organo honek eskumena duela ingurumeneko baimen bateratu hau emateko, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Honako hauek ikusi dira: Sailburuordetza honen 2018ko abenduaren 20ko Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa

babesten duena; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina –abenduarien 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua–; urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, Industriako Igorpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak. Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Cromados Rexgon SL enpresari (IFZ: B01270313) ingurumeneko baimen bateratua ematea, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Kantabrikoaren hiribidea 4, 13. eta 14. pabiloiak) duen metalak tratatu eta estaltzeko instalaziorako; horretarako, ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzei jarraituko die.

Jarduera jasota dago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskineko kategoria honetan: «2.6.– Metalen eta plastikoen gainazala prozedura elektrolitiko-ko edo kimiko-ko tratatzeko instalazioak, tratamenduko kubeten edo lerroen bolumena 30 m³ baino gehiago denean».

Instalazioa Vitoria-Gasteizko Kantabrikoaren hiribideko 4 zenbakiko 13., 14. eta 18. pabiloietan dago. 13. eta 14. pabiloiek 720 m²-ko azalera dute eta 18. pabiloiak 271 m² ditu. Jarduera osoa estalpean gauzatzen da, aipatutako pabiloietan.

Enpresaren barruko jarduera prozesu hauetan egituratzen da:

Piezak prestatzea:

Piezak 18. pabiloian prestatzen dira, eta horretarako makina hauek erabiltzen dituzte:

- Disolbatzailearekin garbitzeko eta/edo koipegabetzeko makina, hozteko ekipamenduduna.
- Piezak bibrazteko makina.
- Lehortzeko bi makina.
- Leuntzeko hiru makina, bat oihalduna eta bi xingoladunak.

Tratamendu-lerroan tratatzen diren pieza guztiak ez dira prestaketa-eremu honetatik igarotzen.

Piezak tratatzeko lerroa:

Enpresaren jarduera pieza metalikoen (burdina, zamak, letoia) tratamendu elektrolitikoan oinarritzen da. Horretarako, 45 m³-ko bainuak dituen 53 posizioeko lerroa du.

Ez dago bainuen prozesu edo zirkuitu bakar bat, pieza bakoitzaren tratamenduak bezeroaren zehaztapenetara egokitzen baitira. Orokorrean, burdin eta letoizko piezak desugerketako eta koipegabetzeko bainuetan sartzen dira, eta zamakezko piezak koipegabetzeko bainuetan bakarrik. Ondoren, kobrea, nikela, letoia jalkitzen eta/edo lakatzen da, eta piezetara bat, bi edo hiru metal gehitu daitezke.

Arazketa:

Arazketa-sisteman tratamendu-urak piezen tratamendu-lerroko garbiketa-uretatik arazten dira. Arazketa-prozesua karga bidez eta eskuz egiten da.

Araztegiak prozesu hauek ditu:

– Zianuroen oxidazioa. Zianuroa duten garbiketa-bainuetako urak 15 m³-ko deposituan jasotzen dira, eta hortik erreaktorera bidaltzen dira; bertan, behar izanez gero, pHa doitzen da eta sodio hipokloritua gehitzen da, zianuroa oxidatzeko. Ondoren, dekantazio-depositura bideratzen dira, hauspeatzeko, flokulantea gehituz eta pHa doitzuz. Lohia bigarren dekantagailu batetara bideratzen da eta araztutako ura isurketen kutxatilara, pHa egiaztatu ondoren.

– Kromo hexabalentea murriztea. Kromo hexabalentea duten garbiketa-bainuetako urak 15 m³-ko deposituan jasotzen dira, eta hortik erreaktorera bidaltzen dira; bertan, behar izanez gero, pHa doitzen da eta sodio bisulfitua gehitzen da, kromoa forma hexabalentetik tribalentera murrizteko. Ondoren, pHa 10era doitzen da kromo tribalentea hidroxido disolbagarri bezala hauspeatzeko, flokulantea gehituz. Lohia bigarren dekantagailu batetara bideratzen da, eta araztutako ura isurketen kutxatilara, kolektoreari pHa egiaztatu ondoren.

– Metalen hauspeatzea hidroxidoen forman. Gainerako bainuetako garbiketa-urak 15 m³-ko depositu batean biltzen dira, eta hortik erreaktorera bidaltzen dira; bertan, behar izanez gero, pHa doitzen da. Geroago, dekantazio-depositura bideratzen dira, metalak hoxidoen forman hauspeatzeko. Ur horiek ur kromikoen dekantazio-depositura bideratzen dira, batera dekantatu daitezten.

– Prentsa-iragazki bidez lehortzea. Hidroxido disolbagarrien forman dekantatutako metalak prentsa-iragazkira bideratzen dira, deshidratatzeko. Etapa honetan, sortutako efluente likidoa araztegiko tratamenduaren hasierara bideratzen da berriz ere, zianuroen lerrora eta sortzen den lohia hondakin arriskutsu bezala kudeatzen da.

Arazketa-prozesua kargaka burutzen da, egunero 4 eta 5 arazketa-karga bitartean gauzatu, bolumenaren arabera.

Zerbitzu orokorrak. Bulegoa eta laborategia:

Bulegoetan enpresa osoarentzako zerbitzuak gauzaten dira. Laborategian produkzio-lerroko eta arazketa-prozesuko kontrolak burutzen dira.

Cromados Rexgon SL enpresak metalen tratamendu eta estaldurako jarduerarako 500.000 kWh energia elektriko kontsumitzen du. Batez ere argiztapenerako (% 15), makina eta ekipoetarako (% 85) eta beroketako gasoliorako.

Cromados Rexgon SLk 7.500 m³ ur kontsumitzen du.

Atmosferara isuritako kutsatzaile nagusiak partikulak, perkloroetilenoa, kromoa eta nikela dira, piezak prestatu eta tratatzeko prozesuetan sortua.

Prozesuetan honako hondakin-ur hauek sortzen dira:

– Garbiketa-urak lerroan, 5.693 m³/urtean.

– Piezen garbiketa bibratuaren ondoren, 48 m³/urtean.

– Kate-garbiketa ur desionizatuarekin (piezen azken garbiketa), 480 m³/urtean.

Kolektorera isuri baino lehen araztegiaren tratatzen dira.

Ur sanitarioak zuzenean kolektorera isurtzen dira, eta 70 m³ hondakin-ur sortzen dira urtean.

Sortutako hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak piezak tratatu eta urak arazteko eta ekipamenduak mantentzeko eta instalazioa zaintzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Cromados Rexgon SLren jardueran, Metalen eta Plastikoen Gainazal Tratamenduetako BREFean («Surface Treatment of Metals and Plastics», 2006ko abuztua) jasotzen diren teknika erabilgarri onenak erabiltzen dira.

Besteak beste, proiektuak honako neurri hauek jasotzen ditu, zeinak teknika erabilgarri onenentzat har baitaitezke:

Zer prozesuri lotuta dagoen	Erabilitako teknika
Prozesuko kalitate-kontrola eta zehaztapenak	Bainu kontzentratuen eguneroko kontrola, kontzentrazio egokia ziurtatzeko. Astero, hornitzaileek bainuak baloratzen dituzte, funtzionamendu-baldintza onak izan ditzaten.
Fabrikako mantentze-lana	Enpresak instalazioen prebentziozko mantentze-lanak burutzeko palan du, behar bezala funtziona dezan.
Hondakinen kudeaketa	Hondakinak bereizita biltzen dira, tipologia eta helmugaren arabera.
Instalazioaren diseinua Irakuzketaren kalitatea. Arrasteak prebenitzea Ur-kontsumoa	Bainu kontzentratuetatik garbiketa-bainuetara kutsatzaileak arrastatzea ekiditeko diseinatu da lerroa: – Upele itxiak tratamendu-upelen alboan arraste kontzentratuenak atxikitzeak. Zeregina bainuko kontzentrazioa atxikitzea da, garbiketa-upeletara eta, geroago, araztegiara arrastatzen den kopurua murriztuz. – Bastidoreak modu zehatzean diseinatzea pieza bakoitzerako arrastea murrizteko. – Kateko garbiketa. Kateko irakuzketa anizkoitza korrontez kontra. – Spray bidez garbitzeko zazpi posizio txertatzea, kontsumo txikiko eiektoreekin. – Iraupen luzeko tantakako denbora-tarteak programatzea. – Kaudalimetroa garbiketa-bainuen sarreran.
Hondakin-uren tratatzea	Garbiketako urak bereizita jasotzen dira araztegiaren tratamendua hobetzeko. Araztegiak kargaka egiten du lan tratamenduaren egokitzapena ziurtatzeko. Redox-kontrola eta PH automatikoa. Teknikari batek ikuskatzen du arazketa-prozesua denbora guztian.
Bastidoreen operatiba	Diseinu espezifikoak pieza mota bakoitzeko, hau lortzeko: – Piezak karga elektrikoa behar bezala jaso dezan. – Arrastea gutxitzeko. – Piezak upeletara erortzea ekiditeko.
Energia-kudeaketa	Kondentsadoreak jartzea elektrizitate erreaktiboa deuseztatu eta kontsumoa hobetzeko. Upelek estalkia dute, beroa ez galtzeko eta kutsatzaileak ez lurruntzeko bastidorerik ez dagoenean.
Lehengaiak biltegitratzea	Fabrikan produktuen biltegitratze-stocka murriztea, prozesurako gutxieneko kantitateak edukiz.

Bigarrena.– Cromados Rexgon SL enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) sustatutako metalen tratamendua eta estaldura egiteko jarduera ustiatzeko, baldintza eta eskakizun hauek ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonari buruz Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik badago, Cromados Rexgon SL enpresak emango du aldaketa horien berri.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala eta indarreko araudiarekin eta honako atal hauetan ezarritakoarekin bat etorri burutuko dira:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Cromados Rexgon SLren instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira atmosfera-rako igorpenek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara igortzen den kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko dira, behar denean, kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango igorpen ez-zarratuak biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko igorpenak egiteko probabilitatea murrizteko, eta haien efluenteek giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen temperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

Instalazioaren titularrek abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren (atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen dituzten instalazioak arautzen dituena) 5. artikuluan jasotako eskakizunak bete beharko dituzte.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Metalen tratamendu eta estaldurarako Cromados Rexgon SLren instalazioak foku konfinatu hauek ditu, urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren katalogoan bildutako 04 03 08 11 eta 06 02 01 03 jarduerari lotuak (dekretu horren bidez, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duenaren eta bera ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dira):

Fokua	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	Jarduteko araubidea
1	0100002026-01	Bainu kromatuak xurgatzea	8	0,31	04 03 08 11 B	Foku sistematikoa
2	0100002026-02	Bainu kimikoak xurgatzea (desugerketa, nikeleztatzea, etab...)	8	0,8	04 03 08 11 B	Foku sistematikoa
3	0100002026-03	Koipegabetzeko makinako xurgatzea	7,2	0,25	06 02 01 03 C	Foku sistematikoa

Bitarteko lehorreko arazte-sistema duen leuntzeko makina oihalduna dauka, oihalezko iragazkiduna, eta biltze- eta iragazte-sistema trinkoko leuntzeko makina lixaduna. Leuntzeko makina batek ere ez du tximiniarik pabiloiaren kanpoalderantz.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko batek bezala funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

Horren harira, foku sistematikoak urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen du, ordubete baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, igorpenen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada.

B.1.1.3.– Igorpenen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren igorpenetan, ez dira gaindituko igorpenen muga-balio hauek:

Fokuak	Substantziak	Igorpenen muga-balioak
1	Partikula solidoak	150 mg/Nm ³
	Kromoa	0,2 mg/Nm ³
2	Partikula solidoak	150 mg/Nm ³
	Ni	-
	CNH	3 mg/Nm ³
	SOx	10 mg/Nm ³
	Cu	-
3	Perkloroetilenoa	20 mg/Nm ³

Balio horiek baldintza hauekin lotuta daude: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Igorpen-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada igorpenaren muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren neurri zuzentzaileak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, neurri zuzentzaileen eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

KOHei dagokienez (perkloroetilenoa), ez dituzte igorpenen muga-balioak gaindituko araz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak igorpenen muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere igorpenen muga-balioak 1,5eko faktoretik gora gainditzen ez baditu.

Disolbatzaileen igorpenen muga-balioak (perkloroetilenoa):

Honako hau da perkloroetilenoaren disolbatzailearen igorpen lausoaren muga-balioa, 117/2003 Errege Dekretuaren «Gainazalak garbitzea 5. artikulua 1. atalean zehaztutako konposatuak erabiliz» II. eranskineko 4. jarduera garatzerakoan:

II. eranskineko jarduera	Disolbatzaileen kontsumo-ataria (t/urtean)	Igorpen lausoaren muga-balioa
4	1- 5	Disolbatzaileen % 15eko sarrera
	>5 t/urtean	Disolbatzaileen % 10eko sarrera

Perkloroetilenaren igorpen lausoen kalkuluak 117/2003 Errege Dekretuaren eta haren garapen-araudiaren arabera egin behar dira.

Ahal den neurrian, Cromados Rexgon SLk perkloroetilenoa, hots, 117/2003 Dekretuaren 5. artikuluan adierazten direnaren arrisku-esakune bati lotuta dagoen konposatua, hain kaltegarriak ez diren substantzia edo nahasketengatik ordezkatu beharko du. Horretarako, ordezteko aukerak daudela frogatzen denean, ahalik eta azkarren ordeztuko da.

B.1.1.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Cromados Rexgon SLk tximinien garaieraren kalkulua bidali beharko du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren IT-07 jarraibide teknikoak oinarritzat hartuta, B fokuetarako (1. eta 2. fokuek).

Halaber, sekzioek eta lagin-puntuaren kokapenak bete beharko dute Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzako jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Igorpen lausoak minimizatzeko helburuarekin, ihesei antzemateko ekipoak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

B.1.2.– Isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: metalak tratatzea eta estaltzea.

Isurgunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordinatuak
V1	Ur sanitarioak	Industrialdeko kolektorea AMVISA	X: 527.575 Y: 4.745.970
V2	Industria-urak	Industrialdeko kolektorea AMVISA	X: 527.575 Y: 4.745.970

B.1.2.2.– Isurketaren emariak eta bolumenak.

– 1. isuria:

Urteko gehieneko bolumena	70 m ³ /urtean
---------------------------	---------------------------

– 2. isuria:

Urteko gehieneko bolumena	6.221 m ³ /urtean
---------------------------	------------------------------

B.1.2.3.– Isurketaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten den isurketaren parametroak honako hauek izango dira, bakoitze-rako zehazten diren gehieneko balioekin:

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Temperatura	50.°C
Solido esekiak	700mg/l
Solido jalkikorrak	5ml/l
pH	6 eta 10 bitartean
OEB ₅	600mg/l
OEK	1000 mg/l
Fenolak	5mg/l
Detergente anionikoak	12 mg/l
Aldehidoak	4mg/l
Pestizidak	0,2mg/l
Kloruroak	2000mg/l
Sulfatoak	2000mg/l
Sulfitoak	10mg/l
Fluoruroak	10mg/l
Zianuroak	1mg/l
Amoniakoa	30mg/l
Nitratoak	20mg/l
Nitrogeno totala	50 mg/l
Fosfatoak	60mg/l
Aluminioa	10mg/l
Artsenikoa	1mg/l
Barioa	20mg/l
Boroa	5mg/l
Kadmioa	0,2mg/l
Kobaltoa	0,2mg/l
Kobrea	0,5 mg/l
Kromo totala	6 mg/l
Kromoa (VI)	0,5mg/l
Burdina	10 mg/l
Manganesoa	2mg/l
Merkurioa	0,05mg/l
Molibdenoa	0,02mg/l
Nikela	2 mg/l
Beruna	0,7mg/l
Selenioa	0,5mg/l
Eztainua	10mg/l
Zinka	5mg/l
Sulfuroak	10mg/l
Olioak eta koipeak	75mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketen muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazketa-prozesua kargaka eta eskuz egiten da, beti prozesua egiteko teknikari kalifikatua bertan dela, eta kasu guztietan tratatutako uraren isuria araztuta dagoela eta pHa egokia dela ziurtatuz.

Hondakin-uren arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

Ur kromikoak Kromo hexabalentea duten garbiketa-bainuetako urak. 5 m³-ko deposituan jasotzen dira, eta hortik erreaktorera bideratzen dira. Bertan, pHa doitzen da, behar izanez gero, eta sodio bisulfitoa gehitzen da, kromoa forma hexabalentetik tribalentera murrizteko. Ondoren, pHa 10era doitzen da kromo tribalentea hidroxido disolbagarri bezala hauspeatzeko, flokulantea gehituz. Lohia bigarren dekantagailu batera bideratzen da eta araztutako ura isurketen kutxatilara, industrialdeko biltodian pHa egiaztatu ondoren.

Ur zianurodunak. Garbiketa-bainuetako zianurodun urak. 15 m³-ko deposituan jasotzen dira, eta hortik erreaktorera bideratzen dira. Bertan, pHa doitzen da, behar izanez gero, eta sodio hopoklorittoa gehitzen da, zianuroa oxidatzeko. Ondoren, dekantazio-depositura bideratzen dira, hauspeatzeko, flokulantea gehituz eta pHa doitzuz. Lohia bigarren dekantagailu batera bideratzen da eta araztutako ura isurketen kutxatilara, industrialdeko biltodian pHa egiaztatu ondoren.

Azidodun urak, Koipegabetzea, Kobre azidoa eta Nikela. Gainerako bainuetako garbiketa-bainuetako urak. 15 m³-ko depositu batean biltzen dira, eta hortik erreaktorera bideratzen dira. Bertan, pHa doitzen da, eta flokulantea gehitzen da, behar izanez gero. Ondoren, dekantazio-depositura bideratzen dira, metal astunak hidroxido forman hauspeatzeko. Korrante hori ur kromikoen dekantazio-depositura bideratzen da, batera dekantatu daitezten.

Desugertzeko eta koipegabetzeko bainu kontzentratuak. Desugertzeko eta koipegabetzeko bainu kontzentratuak, behin agortu ondoren, 5 m³-ko bilketa-depositura bideratzen dira, eta hortik erreaktorera dosifikatzen dira, tratatzeko, azidodun urekin, koipegabetzeekin eta kobre azidoarekin eta nikelarekin. Desugerketa-bainua hustu egiten da 2 hilean behin eta koipegabetze-bainua 3 hilean behin. Tratamendurako bainu horiek depositutik erreaktorera eskuz dosifikatzen dira, araztegiak lan larregi egin ez dezan.

Metalen bainu kontzentratuak, bainuen konposaketa kontrolatzen da eta behar diren gatzek hornitzen dira berriz, bainuak hustu gabe.

Dekantazioa eta iragazketa. Metalak hidroxido disolbagarrien forman dekantatzen dira, eta prentsa-iragazkera bideratzen dira, deshidratatzeko. Etapa honetan, sortutako efluente likidoa tratamenduaren hasierara bideratzen da berriz ere, zianuroen lerrora, eta sortzen den lohia hondakin arriskutsu bezala kudeatzen da.

B.1.3.– Instalazioan ekoizitako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legean (uztailaren 28ko 22/2011 Legea) eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, hartarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Leheneratzea-berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, lehenetsunez instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortege baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horien ezaugarriak zehaztuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Ezertan eragotzi gabe Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa, instalazioko aldatetako kalifikatzeko, kasu honetan baimena egokitzea soilik eskatu beharko da baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegiratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurtzeak edo lixibatuak sor baditzakete, bada, orduan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isurtzeak kanpora irten ez daitezkeen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen 180/2015 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 25.2 artikuluari jarraikiz.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, hondakinen lekualdaketak direla-eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarrita dagoena bete beharko da.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskripzioa	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko modua	Biltegitratze mota	Sortze-prozesua	Kalkulatutako ekoizpena (kg/urtean)
150110	Plastikozko ontzi kutsatuak	H5	R13	Big-bagak	Gainazaleko tratamendua eta Araztegia	100
190205	Prentsa-iragazkiko opilak	H5/13	D9	GRG moldagarria	Araztegia	3.450
200133	Bateriak	H8	R13	Kutxa (bere bilgarria)	Zerbitzu Orokorrak. Karretila	50
150110	Kutsatutako metalezko ontziak	H5	R13	Big-bagak	Gainazaleko tratamendua eta Araztegia	200
150202	Xurgatzaileak-material kutsatuak	H5	D15	Big-bagak	Zerbitzu Orokorrak.	200
130208	Olio erabilia	H5	R9	200 l-ko bidoiak	Zerbitzu orokorrak	50
200121	Fluoreszenteak	H6	R13	Kutxa, bere bilgarria	Zerbitzu orokorrak	5
160506	Laborategiko hondakinak	H6/3B	D15	200 l-ko bidoiak	Laborategia	20
150202	Xurgatze-iragazkiak	H5	D15	200 l-ko bidoiak	Zerbitzu orokorrak	50
120114	Bibragailuko lohia.	H6	D9	200 l-ko bidoiak	Bibragailua. Garbiketa	400
070704	Laka-hondakinak	H3	R13	1 m ³ -ko GRG-a	Gainazaleko tratamendua	Puntuala

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arrisku-tsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarri-koak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen definitzen dute. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erki-degoko IV. Ingurumeneko Esparru Programan (2015-2020) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informa-zioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onarpen-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isur-kearen bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurga-rria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora eduki biltegian.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaez egiaztatu beharko da –agiri bidez– ezen kudeatzaile baimendu horrek onartu egiten dituela hondakinak.

Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da administrazio-baimenarekin bat datozela tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da, hondakina, lehenengoz, erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinak beste kudeatzaile batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Cromados Rexgon SLk tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu eta artxiboan gorde behar ditu, hiru urtez, gutxienez.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Cromados Rexgon SL enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan erabilitako olio.

i) Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak–. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratu izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, baita toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Cromados Rexgon SLk PCB eduki dezaketen gailuak ditu. Hori dela eta, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak (errege-dekretu haren bidez, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dira) eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak, ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean eman zuenak, adierazten dituen substantziak erabiltzen baditu, Cromados Rexgon SLk berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Cromados Rexgon SL enpresak urtero adierazi beharko du Ingurumen Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko dagokion urteko programa ere bidaliko du.

m) Erregistro bat eramango da, eta bertan adieraziko dira kantitatea, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak, hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarriko printzipioetako bat betetzeko –hau da, hondakin horiek ahalik eta gutxien sortzea–, urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gehiago sortuz gero, Cromados Rexgon SLk hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetza honi, lau urtetik behin, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta Lege horren garapenerako araubideak ez badu hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen Cromados Rexgon SL.

o) Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Cromados Rexgon SL, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Atal honetako e) eta f) apartatuetan aipatutako dokumentuak (kudeatzaileak EAeko lurraldekoak direnean) eta l), m) eta n) apartatuetan aipatutakoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, harreman elektronikoko IKS-eeM sistemako erakunde-bertsioa erabiliz, irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz (dekretu horren bidez arautzen da nola erabili zerbitzu elektronikokoak Ingurumeneko administrazio-prozeduretan, bai eta ingurumenen eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa nola sortu eta erregulatu ere).

q) Amiantoaren duten hondakinak daudela ikusiz gero, Cromados Rexgon SLk bete beharko ditu Amiantoaren ingurumenen sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amiantoaren duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin ez-arriskutsu hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Dagokion prozesua	Kalkulatutako ekoizpena (kg/urtean)
Plastikoak	200139	Zerbitzu orokorrak	250
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu orokorrak	250
Metalezko hondarrak	200140	Zerbitzu orokorrak	250
Hiri-hondakinak	200301	Zerbitzu orokorrak	2.000

a) Bigarren apartatuaren B.1.3 azpiapartatuan xedatutakoarekin bat, hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, hartarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: behar bezala frogatzen bada hondakinak balorizatzea bideraezina dela teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Justifikazio tekniko hori baliagarria izan dadin, dena delako hondakina hartzeko baimena duten hiru kudeatzailek balorizazioari uko egiten diotela frogatu beharko da.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzailer, birziklatzailer edo balorizatzaile baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitratuta eduki; hondakinen azken helburua balorizatzea denean, berriz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Cromados Rexgon SLk tratamendu-kontratuak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

e) Hondakina zabortegian biltegitratuz gero, hondakin arriskugabea eraman aurretik identifikazio-agiria bete beharra egongo da, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa (dekretu haren bidez arautu zen hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea).

g) Balorizatze edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011 Legea) 25.2 artikulua araber.

g) Baldin eta Cromados Rexgon SL azken jabea bada Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi batena, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

h) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituen: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programa bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

i) Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko den irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, atal honetako d), e) apartatuetan aipatutako dokumentuak –kudeatzaileak EAEkoak direnean– eta f) eta h) apartatuetan aipatutakoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko IKS-eeM sistemako erakundeak bertsioa erabiliz.

B.1.4.– Ontziak merkaturatzea.

Cromados Rexgon SL enpresak, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta bilgarriak erabiltzen dituen enpresa den aldetik, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, ontzien gaineko urteko adierazpena egin beharko du. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko dagokion urteko programa ere bidaliko du.

Era berean, Cromados Rexgon SL enpresak derrigorrez ezarri beharko du ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko biltegitratze- eta itzultze-sistema bat (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Cromados Rexgon SLk, bere produktuak merkaturatzeko industria- edo merkataritza-ontziak erabiltzen baditu, aipatu betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu ahalko du,

ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian arautakoari atxikitzen bazaio; atxikimendu horren bidez, ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio.

B.1.5.– Lurzorua eta lurpeko urak babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzorua-ren egoerari buruzko aurreiazko txostenaren gomendioekin bat etorritik, Cromados Rexgon SLk lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

Halaber, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan, eta abenduaren 16koan xedatuta dauden eta lurzorua-ren babesarekin lotura duten betebeharrak egikaritzeko, 2016ko azaroaren 17an ingurumen-organoak bidalitako «Lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren gaineko arauzko eskakizunak aplikatzea ingurumeneko baimen bateratua behar duten instalazioetan» zirkularrean aipatzen diren instalazioei eskatzen zaien dokumentazioa entregatu beharko du sustatzaileak. Zirkular horretan, honako hau jasotzen da: lurzorua-ren egoerari buruzko aldizkako txostenaren edukia eta entregatzeko baldintzak, lurzorua-ren eta lurpeko uren oinarritzko txostena eta kontrol- eta jarraipen-dokumentuak. Esteka honetan eskura daiteke:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/lurzoru-kutsatuen-eta-lurpeko-uren-gaineko-arauzko-eskakizunak-aplikatzea-ingurumen-baimen-integratua-behar-duten-instalazioetan/web01-a2ingkut/eu/>

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzorua-ren dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzorua-ren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde ezagun batek egina. Dokumentu horretan jasoko dira: lurzorua-ren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzko txostena, eta kontroleko eta lurzorua-ren eta lurrazpiko uren jarraipeneko dokumentuak. Aurrerantzean ere, emandako agiriari aldatu edo agiri berriak eman behar badira, lurzorua-ren agiri bakar berri bat bidali beharko da.

Instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez, sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurra mugitzea erakarriko lukeen aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikulua-ren 1.c apartatuarekin bat etorritik, jardueraren sustatzaileak karakterizatu egin beharko ditu hondeatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak, eta abar), jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehazteko.

b) Hondeaketa horretan hondeatutako materialek 500 m³ gainditzen badituzte, sustatzaileak gaikako hondeaketa-plan bat aurkeztu beharko du; planak 13. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu behar du plan hori, betetzen hasi aurretik.

c) Hondeatu beharrekoa 500 m³ baino gutxiago bada, aldaketaren jakinarazpenean informazio hau eman beharko da: non dagoen kokatuta, zenbat hondeatu behar den, aurreikusitako hasiera-eguna, kontratista, jarraipenaren eta kudeaketaren ardura izango duen erakundea. Halaber, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurzorua-ren karakterizazioaren emaitzak eta horien azken helmuga adierazi beharko dira.

d) Aurreko kasu horietan guztietan, hondeatzen amaitutakoan, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da ingurumen-organoan, behar bezala karakterizatu aurretik.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/publicaciones/guia-excavaciones-selectivas-en-ambito-suelos-contaminados>

– Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa gauzatzeko, gidaren 10.2.6 apartatua (Induskatu behar diren lurzoruetan «in situ» egindako laginketa) biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarrizko irizpideei jarraituko zaie.

– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: ekainaren 25eko 4/2015 Legean (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa) ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo- edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, honen arabera: urriaren 10eko 199/2006 Dekretua, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

– Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako VIE-A ebaluazioko balio adierazleak eta TPH direlakoetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

– Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalaren pareko den harrizko substratu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpideak beteko da.

2.– Baldin eta aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketaren bat egingo dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatzen den jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru-gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikulua 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikulua 1.e apartatuari jarraikiz betiere.

B.1.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Indize akustiko hauek gaindi ez daitezen hartu behar diren neurriak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzetan barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmaz indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; halakoetan, pantailatzeak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L _d	75
L _e	75
L _n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneeetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da Ingurumena Zaintzeko Programa:

C.1.– Igorpen atmosferikoak kontrolatzea.

C.1.1.– Kanpoko kontrolak.

a) Cromados Rexgon SLk igortzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, informazio honen arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
1	0100002026-01	Bainu kromatuak xurgatzea	Partikula solidoak	3 urtean behin	UNE-ISO 9096
			Kromoa		UNE-EN 14385
2	0100002026-02	Bainu kimikoak xurgatzea (desugerketa, nikeleztatzea, etab...)	Partikulak	3 urtean behin	UNE-ISO 9096
			Ni		UNE-EN 14385
			CNH		IT-02 argibide teknikoaren arabera: Igorpenen kontrola (1)
			SOx		EPAko 8. metodoa
			Cu		UNE-EN 14385
3	0100002026-03	Koipegabetzeko makinako xurgatzea	Perkloroetilenoa	5 urtean behin	UNE-EN 13649

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Agindua, zeinaren bidez jarraibide teknikoak zehaztu baitziren abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko (dekretu haren bidez, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak garatzen dituzten instalazioak arautzen dira).

b) Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako igorpen-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batezbesteko maiztasunarekin funtzionatzen bada, igorpen bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko Ingurumena Zaintzeko Programan justifikatu beharko da.

C.1.2.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraituz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluan (100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituena) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskinean (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

C.1.3.– Disolbatzaileak erabiltzeagatik igorritako konposatu organiko hegazkorren kontrola.

Cromados Rexgon SL denez Zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren igorpenak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan xedatutakoaren aplikazio-eremuan aurkitzen den merkataritza-elkartea, urtero bidali beharko du, dagokion urteko ingurumen-zaintzako programaren barnean, Konposatu organiko hegazkorrik igortzen dituzten instalazioei buruzko urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretuak 9.1 artikuluan zehazten duen dokumentazioa.

Urte jakin batean Cromados Rexgon SLren disolbatzaile-kontsumoa urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak II. eranskinean ezartzen duen urteko kontsumoaren atalasea iritsi ez bada, instalazioak soilik igorri beharko du urteko disolbatzaile-kontsumoaren taula, 1/2013 Dekretuaren 9.2 artikulua agintzen duen moduan.

1/2013 Dekretuaren 9.1 eta 9.2 artikuluetan aipatzen diren dokumentuak bidaltzeko, <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-20775/es/> helbide elektronikoan dauden txantiloioak erabili beharko dira, bertan dauden gidan jarraibideen arabera.

Cromados Rexgon SLk ekoizpen-aldaketak egiten dituelako edo lehengai berriak erabiltzeagatik aurreikusten bada urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasota egoteari

utzi egin behar diola, behar bezala arrazoitu beharko du zio hori EAEn konposatu organiko hegazkorrak igortzen dituzten instalazioen zerrendan duen inskripzioa baliogabetzeko, 1/2013 Dekretuak 8. artikuluan agintzen duen eran, eta, behar izanez gero, ingurumeneko baimen bateratuan dituen igorpen atmosferikoen baldintzak aldatu ahal izateko.

C.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analitika hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
V2	Industria-urak	X: 527.575 Y: 4.745.970	Gasteizko Udalak ezarritako parametro bereizgarriak	Gasteizko Udalak ezarritako aldizkakotasuna	Gasteizko Udalak egindakoak
			pH, solido esekiak, OEK, burdina totala, olioak eta koipeak, detergenteak, nikela, zinka, beruna, kromo VI-a, kromo totala, zianuroak, kloruroak, sulfatoak	Lau hilean behin	Kanpokoak

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aurreko puntuetan aipatu diren parametro guztietan gauzatuko dira. Sustatzaileak isurketaren lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Laginketak, kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko B.1.2.3 azpiapartatuan ezarritako mugak.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programarekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Ekoizpena, guztira	t		t	urtean
Material-kontsumoa		t		t/karga	urtean
Energiaren kontsumoa	Elektrizitatearen kontsumoa	kwh	Elektrizitate-kontsumoa/karga guztira	kwh/karga	urtean
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m ³	Uraren kontsumoa/kargak guztira	m ³ /karga	urtean
Isurketak	2. isuria:	m ³	2. isuria/ekoizpen-kargak	m ³ /karga	urtean
Igorpen atmosferikoak		t/urtean		t/karga	urtean
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu balorizatuak / sortutako hondakin arriskutsuak	%	urtean
	Hondakin arriskutsu balorizatuak	t			
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t	Hondakin ez-arriskutsu balorizatuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak	%	urtean
	Hondakin ez-arriskutsu balorizatuak	t			
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urtean	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera kopurua	Kopurua/urtean	urtean
Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)	Ezarritako eta ziurtatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/urte	Ekoscan/ urtea eta/edo ISO14001/ urtea eta/edo EMAS/ urtea	Bai/ez Zein/urte	urtean

C.4.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urtetik behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i y $L_{Aeq,60}$ segundo. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Neurketa bidezko ebaluazioak –aurreko atalean adierazitakoak– ingurumen arloko erakunde laguntzaile batekin egin beharko ditu. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sail-buruordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.5.– Emaizak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

https://www.euskadi.eus/y22-izapide/eu/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_201732123333101/procedures/proc_201732144928210/eu_def/electronic_partial.shtml

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, Ingurumena Zaintzeko Programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean bakarrik jakinarazi beharko da, eta jakinarazpena ingurumeneko baimen bateratuan ezarritakoaren arabera egingo da. Era berean, urtebete baino aldizkakotasun handiagoko kontrolik egiten bada, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez da igorriko.

Emaizak horiek urtero igorriko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintzeko programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik egin ez bada.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agiritan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, Ingurumena Zaintzeko Programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzekeo sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoerentarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzekeo eta abiaraztekeo eragiketak eta mantentze-lanentarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien, igorpenen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzeko ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren ataleko B.1.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. «Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak», jarraitu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea (28.5 epigrafea: metalen tratamendua eta estaldura), eta Kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzeko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Horrenbestez, Cromados Rexgon SL enpresak lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hasi beharko du, bi hilabeteko epea agortu baino lehen, jarduera behin betiko uzten duenetik hasita, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Cromados Rexgon SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuaren B.1.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorriz.

D.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Cromados Rexgon SLk, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, agiri bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumeneko baimen bateratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketa edo igorpen oro saihesteko.

D.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isuriak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituenak: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara egindako igorpenak eta uretara egindako isuriak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak behar besteko maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilguan hus-

tuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo hondakindegia baimendu batera eramateko. Gorde egingo dira hondoa hustubiderik ez duten biltegi iragazgaitzetan. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Baldin eta instalazioetan lokatzen tratamendua badago, horietatik jaregindako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-ura ezingo da «by-pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez «by pass» bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «By pass» horrek aurreikusi gabeko isurketaren bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, eta dagokion txostena Ingurumen Sailburuordetzara bidali (apartatu honetako j) letran adierazitakoari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki behar da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako jazoerak jasota uzteko.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta, oro har, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaitzuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegitratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloiei estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratzeko dira, halako kondiziotan ezen ez baitira izango ingurunean sakabanatzeko moduan.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guz-tien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipo egokiak.

i) Kubetak husteko eragiketarako kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat izango dute; eta saiatu behar dira efikaziari eragin diezaizketen isuriak tratamendu-instalaziora joan ez daitezen.

j) Gorabeheraren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera

horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean honako alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Halakorik badago, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Vitoria-Gasteizko Udala jakinaren gainean jarri behar dira, berehalakoan. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean hauteman daitezkeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barnean hartuta.
- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Anomalia berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean eta ingurumen arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabehera edo arazoei aurre egiteko, jardueraren titularrak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari instalazioan aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, etengabeko prozesu bati dagozkionak, aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak barne hartuta.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta legeria horrek agintzen dituen betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

E) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa aldatu ahal izango dira, bai neurri behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein

zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizios aldaraz daitezke, Ingurumena Zaintzeko Programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Cromados Rexgon SL enpresak, aurreko urtean atmosferara egindako igorpenei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorritik.

Informazio hori IKS-eeM sistemaren erakunde-bertsioaren bidez emango da (www.eper-euskadi.net webgunean dago eskueran), hau da, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistemaren bidez.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean Eragina duten Jardueren Erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, informazioa Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko (E-PRTR-Europa erregistroa).

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritik. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldeztu aurretik helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko dute:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/ippc/eu_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Erakunde honen onspena ere beharko da, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Industriako Igorpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, aipatutako 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko

Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrek ezartzea ekar dezake.

Hirugarrena.— 16-I-01-000000000392 erregistro-kodea ematea Cromados Rexgon SL enpresak ustiatutako instalazioari (helbidea: Kantabrikoaren hiribidea 4, 13., 14. eta 18. pabiloiak, Gasteizko udalerrria). Haren kokapena hau da: UTM (ETRS89) 30T, X: 527.575, Y: 4.745.970.

Laugarrena.— Ingurumeneko baimen bateratua ofizioz berrikusiko da kasu hauetako edozeinetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, komeni da emisioen muga-balioak berrikustea, edo beste batzuk ezartzea.

b) Emisioak nabarmen murriz daitezke gehiegizko kosturik izan gabe erabil daitezkeen teknika-rik onenetan egindako aldaketa handien ondorioz.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

e) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

f) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

g) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

h) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen 26. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritik egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumeneko baimen bateratua berrikustea ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

Bosgarrena.— Alderdi hauei sei hilabeteko epean erantzuteko eskatzea Cromados Rexgon SL enpresari:

– Justifikatu behar da kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik: Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen erabakiaren bidez argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

– Lurzoruen agiri bakarria entregatu beharko da, «Lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren gaineko arauzko eskakizunak aplikatzea ingurumeneko baimen bateratua behar duten instalazioetan» zirkularraren arabera (ikus B.1.5 bigarren apartatua).

– Cromados Rexgon SLk igorpen atmosferikoen hiru foku dituen, eta horietatik bi (1. eta 2. fokuak) B taldekoak direnez (urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretua, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzekoa eta dekretua aplikatzeko oinarritzko xedapenak finantzatzekoa), Cromados Rexgon SLk tximiniaren garaieraren kalkulua bidali beharko du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Agindua-
ren IT-07 jarraibide teknikoak oinarritzat hartuta.

– Hasierako IKE txostena eta hiru fokuetako igorpen atmosferikoen gaineko kontrola.

Seigarrena.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoarekin bat, metalaren tratamendua eta estaldura egiteko jarduerari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Cromados Rexgon SLk Ingurumen Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Epean ez egiaztatzea ebazpen honen bosgarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen direla, non eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Foku berri bat ezartzea dela-eta Ingurumen Kontrolerako Erakundearen (IKE) hasierako txostena bidaltzeko ezarritako sei hilabeteko epea betetzen ez bada.

– Cromados Rexgon SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Cromados Rexgon SL enpresari, Vitoria-Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 15a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.